28	10:00-14:00 h	Tailerra: Konposizioa denbora errealean bitartekarientzat. Carolina Campos eta Daniel Pizamigliorekin		
	10:00-13:00 h + 15:00-18:00 h	Tailerra: Kuradoretza: hainbaten arteko bitartekaritza. Catarina Saraivarekin		
3.2. 1. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketako programazioa				
29	10:00-14:00 h	Tailerra: Konposizioa denbora errealean bitartekarientzat. Carolina Campos eta Daniel Pizamigliorekin		
	11:00-14:00 h	Ibilbide pertsonalak *		
	14:00-16:00 h	Bazkaria Muelle 3n *		
3.2. 1. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketako programazioa				
30	9:30-13:30 h	Plataforma prototipoa <i>Gidariak:</i> Natalia Álvarez Simó eta Arantxa Mendiharat	Praktika Artistiko Kritikoaren prototipoa <i>Gidariak:</i> Idoia Zabaleta eta Ricardo_AMASTE	Interinstituzionalitatearen prototipoa <i>Gidariak:</i> Ania González eta María Ptqk
	15:30-16:15 h	Proiektuaren aurkezpena: Gorputza desagertzen denean. Blanca Calvo eta Ion Munduaterekin		
	16:15-17:00 h	Proiektuaren aurkezpena: Interinstituzionalitatearen kontratua / Harreman kontraktual bat eraikitzeko kita Ania Gonzálezekin		
	17:00-19:00 h	Elkarrizketak artistekin		
3.2. 1. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketako programazioa				
31	9:30-12:30 h	Plataforma prototipoa <i>Gidariak:</i> Natalia Álvarez Simó eta Arantxa Mendiharat	Praktika Artistiko Kritikoaren prototipoa <i>Gidariak:</i> Idoia Zabaleta eta Ricardo_AMASTE	Interinstituzionalitatearen prototipoa <i>Gidariak:</i> Ania González eta María Ptqk
	12:45-13:30 h	Prototipoen amaierako topaketa		
	15:30-16:15 h	Proiektuaren aurkezpena: Bulegoa Z/B. Beatriz Cavia, Miren Jaio eta Leire Vergararekin		
	16:15-17:00 h	Proiektuaren aurkezpena: INTACT Project. Ekintza telepartekaturako interfazea. Sara Malinarich eta Manuel Teránek		
	17:00-19:00 h	Elkarrizketak artistekin		
3.2. 1. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketako programazioa				

* Jarduera hauek bertako artistentzako eta Espainiako nahiz nazioarteko gonbidatuentzako dira bakarrik. Jarduera izen emandakoek ezingo dute gonbidapenik gabe bertan parte hartu.

MISIO BERRIA

MOV-S Mercat de les Flors-en ekimena da, hau da, Bartzelonako Mugimendu Arteen Zentroarena, eta hauxe du helburu: dantzaren eta mugimendu-arteen esparruko artista eta erakundeen artean lotura zubiak eraikitzeko eta elkarlanean aritzeko bide naturalak sortzeko espazioak bilatzea.

Bost edizio hauetan garatuz joan da, eta testuinguru politiko, ekonomiko, sozial eta artistikoetako bakoitzeko premietara egokituz. MOV-S mugimenduak bere misioa aldatu du aurreko edizioetako (Bartzelona, 2007; Galizia, 2008, eta Madril, 2010) eta etorkizuneko edizioen arteko trantsizioko edizio baten ondoren (Cadiz, 2012).

Beste leku batetik abiatuta modu bateratuan pentsatu nahi dugu orain. Denongan eragina duten eta geure eragina jasotzen duten gai komunei buruz **pentsatu eta gaion gainean eragiteko espazio eta denbora bateratuak sorrarazi** nahi ditugu.

Horretarako, errotiko **bi aldaketa** egin ditugu proiektuaren funtzionamenduan:

▮ Lehen aldaketa **dimentsioari** dagokio: MOV-S proiektua askoz txikiagoa, mugikorragoa eta malguagoa da orain.

▮ Bigarrena **maiztasunari** dagokio: bosgarren edizioa 2014-2015 bitartean egingo da, eta hainbat mintegi antolatu ditugu edizio honen barruan.

Gainera, koherentzia eta baliabideen arrazionalizazioa lortzearen, berezko programa artistikoa izateari utzi eta edizio bakoitzari dagokion **lekuan martxan dauden jaialdiei** lotuta garatuko da programa, ahaleginak eta baliabideak bateratuz horrela.

Aurreko edizioetan parte hartu zuten pertsonak eta 2012ko ediziorako elkarriketatutakoek emandako proposamenen emaitza dira aldaketa horiek guztiak. Era berean, egungo egoeran sortutako behar berrien inguruan egindako azterketa sakon bati ere erantzuten diote aldaketok.

BOSGARREN EDIZIOAREN FORMATOA

MOV-Sen bosgarren edizioan zenbait mintegi proposatu ditugu, **Iberoamerikako hainbat lurraldetan egitekoak modu ibiltarian**.

2014-2015ko edizioan leku hauetan izango gara:

▮ **Galizian**. San Simon uhartean egin da mintegia, 2014ko martxoaren 11-13 bitartean.

▮ **Bilbon**. 2014ko maiatzaren 26-31 bitartean egingo da mintegia, AlhóndigaBilbaok bigarren urtez jarraian antolatzen duen 3, 2, 1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketaren bigarren edizioarekin bat etorri.

▮ **Mexikon**. 2014ko ekainaren 18a eta 20a bitartean izango da, Transversales Jaialdiak antolatutako Dantza Topaketa Nazionalan, INBA (Guadalajara).

▮ **Mexikon**. Transversales Jaialdiarekin lotuta, San Luis Potosí-n, 2014ko abuztuaren 8, 9 eta 10ean.

▮ **Txilen**. 2015ean egitekoa da mintegia (data eta testuingurua zehazteke).

Mintegi guztiak zeharkatzen dituen gaia **ARTIKULAZIOA** da, ikuspegi konplexu batetik ulertua, komunitatearekiko erlazioan pentsatua, artisten artean, beste eragile batzuekin batera, beste lurralde transnazioal batzuekin batera mugitzen gareneko testuinguruaren barruan, zentzu bati lotzeko hedatu behar ditugun mikroartikulazioen ekosistema baten baitan gutzia ere.

GALIZIAKO MINTEGIA

Galiziako mintegia martxoaren 11-13 bitartean egin da San Simon uhartean (Redondela), Vigoko FestivALTekin bat etorri eta Galiziako Xuntaren babesarekin.

Kuradoreta kolektiboko prozesu baten bidez egin zen mintegia. Hogei bat lagunek parte hartu zuten, artistak eta Galizia bertakoak gehienak ere.

Mintegian bertan 45 lagunek parte hartu zuten, Galiziakoak nahiz Espainia osokoak. Modu aktiboan jardun zuten eta bi dokumentu osatu zituzten: **Programazio Hedatuari** buruzkoa bata, eta **Museoen eta Arte Zentroyen Eginkizuna Arte Biziei dagokienez** izenekoak bestea.

Espero dugu bi dokumentu hauek tresna erabilgarria izatea artista eta bitartekarien lanerako. Batetik, ekoizpenean ez ezik praktika artistikoetan ere oinarritzen diren harremanak eratzeko; bestetik, arte biziak museoen ADNaren parte izan daitezen, obrak erakustetik haratago doan modu konplexu batean.

Bi dokumentuok Espainiako Estatuko erakunde publiko eta pribatuei aurkeztuko zaizkie, bertan proposatzen diren jardun-ereduak martxan jarri ditzaten epe ertainean.

BILBOKO TOPAKETA

Bilboko MOV-S mintegiko edukiekin honako helburu hauek lortu nahi dira, hainbat proposamenen bidez:

|| Programazio-esparru publiko eta pribatuetan **programazio hedatuak garatzeko helburuz, pentsamendua eta operatibotasuna lantzeko aukera ematen duten tresna batzuk** eskaini nahi dira.

Praktika artistiko guztietan, lantzen direneko espazioekiko, uztartzen direneko komunitateekiko eta martxan jartzen diren gailuekiko erlazioan garatzen diren programazioak dira **programazio hedatuak**.

|| Proposamen zehatz bat garatzea, **artisten nazioarteko ikusgarritasuna lortzeko konfiantzazko esparru bat sortzeko** helburuz, artista horiek beste lurralde batzuetara hedatu ahal izan daitezen.

|| **Denok batera gai komunetan pentsatu ahal izateko espazio bat proposatzea**. Gai hau Cadizen 2012an egindako MOV-Sko lan-eskemetatik sortu zen.

|| **Euskadik arte bizien alorrean duen egoera** ezagutzea, eta ikertzea artistak non dauden orain, zertan ari diren, zein proiektutan dabiltzan eta haien kezkek zein diren.

JARDUERAK

Trebakuntza-tailerrak

Konposizioa denbora errealean bitartekarientzat

Carolina Campos eta Daniel Pizamigliorekin

Denbora Errealeko Konposizio (DEK, gaztelaniaz CTR) teknika arte-sorkuntza eta -lankidetzako prozesuetan erabili ohi den prozedura bat da. Prozesuok gauzatzeko eta pentsatzeko moduetan oinarritzen da tailer hau, erlazio batzuei lehenasuna ematek esparru komun bat sortzen den lekuetan. Prozedura honen barruan ez da araurik finkatzen, arauak aldez aurretik baztertzen dira eta bidea "aurkitzen" joaten da, jokoak aurrera egin ahala. DEK teknika gertakizunari itxoiteko eta hari eusteko prozesua garatzeko estrategia gisa erabiliko da. Horrekin batera, murrizketen atzean ezkututzen den sormena ere landuko da. Arteetan oinarritutako tailer honek zeharkako beste kontzeptu eta praktika batzuk ere landuko ditu, bizikidetzeta, jasangarritasuna eta elkarrekin bizitzeko moduak pentsatzen dituzten alorretan.

Carolina Camposek master bat du Komunikazio Zientzietan eta dantzari gisa jardun du sei urtean Cia. Municipal de Dança de Caixas do Sul-en eta beste lau urtean Lia Rodrigues Companhia de Danças-en. Dantza eta argazkilaritzako irakasle izan da unibertsitatean. 2012an ikerlari egoiliarra izan zen Lisboako AND_Lab-en.

Daniel Pizamiglio Antzerki lizentziaduna da, eta antzerki, zinema eta dantza garaikideko sortzaile eta interpretea. Arte performatiboan alorrean Pizamiglioren lan hauek nabarmentzen dira: *Cavalos*, Andréia Pieres eta Leonardo Mouramateusekin batera sortua, eta *O que está em redor da cena?* Dantzari gisa Cia. da Arte Andanças, Cláudia Dias eta Cecília Laranjeirarekin batera aritu da.

Brasilen jaio eta Lisboan bizi dira biak, eta Atelier RE.AL-en lan egiten dute. Denbora errealeko konposizioa ikertzen dute han eta sorkuntza-lanetan parte hartzen dute João Fiadeiro koreografoarekin batera.

standing.hotglue.me

Kuradoretza: hainbaten arteko bitartekaritza

Catarina Saraivarekin

Kuradoretzaz hitz egitean testuinguruak, artistak, finantzaketak, ikusleak... hartu behar dira aintzakotzat. Lan konplexua baina, aldi berean, arte eszenikoetarako ezinbestekoa osatzen du horrek guztiak. Eskaera eta eskakizun askoko merkatu batean, kuradoreak bitartekari rola hartzen du beti, eta zubiak eraikitzen ditu merkatuko parte-hartzaile eta osagai guztien artean.

Caterina Saraiva arte eszenikoen ekoizle, kuradore eta ikerlaria da, gradu-ondoko bat du kultur kudeaketan eta master bat ikasketa eszenikoetan. Lisboako Alkantarako zuzendaritzako kide izan zen, eta egitasmo horretako zuzendaritza artistikoaz arduratu zen 2007-2009 bitartean. 2010etik 2012ra Madrilen jardun zuen kuradoretza- eta ikerketa-proiektuetan parte hartzen eta halakoak garatzen La Casa Encendida eta Matadero Madriden. Portugalen eta Europan arte eszenikoen zenbait sare nazional eta nazioarteko sortu eta garatu zituen, eta ikerketak egin zituen kultur politiken esparruaren barruan. 2011ko irailean lankidetzeta hasi zuen Brasilgo Panorama jaialdiarekin, eta hango zuzendari artistikoa da 2012az geroztik.

Prototipoak

Profesionalek gidatutako hiru lan-mahaitik abiatuta landuko dira prototipoak. Ikertu beharreko kasu bat eta metodologia bat proposatuko dira, formulatutako gaiaren inguruan esperientzia bat irudikatuz eta idatziz garatu ahal izateko denon artean.

Plataforma prototipoa

Gidariak: Natalia Álvarez Simó eta Arantxa Mendiharat

Artisten nazioarteko ikusgarritasuna lortzeko konfiantzazko esparru bat sortzeko helburua duen proiektu baten prototipoa sortzeko lan-mahaia.

Natalia Álvarez Artearen Historiako lizentziaduna da eta Enpresa eta Erakundeen MBA bat du. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía

museoko Arteak Bizirik arloko arduraduna da 2010etik eta Iberoamerikako arte eszenikoak garatzea bideratutako Iberescena programako Unitate Teknikoan dihardu 2007az geroztik. Europan dantzaren kudeaketan lidergoa garatzeko asmoz sortutako Léim europar proiektuan ere parte hartzen du.

Arantxa Mendiharat Zientzia Politikoetako lizentziaduna da eta master bat du Kultur Kudeaketan. Esperientzia du proiektu artistikoen eta lurralde-garapeneko proiektuen kudeatzaile gisa, bai eta arteen bidez irekitako eraldaketa-prozesuetan ere, Divergentes, Disonancias y Conexiones Improbables-eko koordinatzaile izan zen aldetik. Creative Clash europar programaren Zuzendaritza Batzordeko kide da; programa horrek gomendioak ematen dizkio Batzordeari berrikuntza eta erantzukizun sozialeko inguruneekin lotutako praktika artistikoen inguruan.

[www.conexionesimprobables.com / @im_probables](http://www.conexionesimprobables.com/)

Praktika Artistiko Kritikoen prototipoa

Gidariak: Idoia Zabaleta eta Ricardo_AMASTE

Programazio-espazioetan praktika artistiko kritikoak txertatzeko moduari buruzko proiektu baten prototipoa sortzeko lan-mahaia.

Idoia Zabaleta koreografoa da eta Biologiako lizentziaduna. Gauzak erlazionatzen dituen sistema konplexutzat du koreografia. Dantzetatik gehien gustatzen zaion gauzetako bat besteekin dantzatzea da, izan pertsona bat, objektu bat edo planeta bat, soltean nahiz helduta. Nazioarteko jaialdietan aurkeztu ditu bere lanak, eta irakasle dihardu master eta gradu-ondoko ikastaroetan. 2008az geroztik Azala sorkuntza-gunea gidatzen du, Juan Gonzálezekin batera.

www.azala.es

Ricardo_AMASTE des-artista bat dugu, Eskorbutoaren eta Bob Esponjaren erdibidean kokatzen da, apokaliptikoa eta integratua da, anarko-komunitarista informala, prokomunaren eta deshazkuntzaren aldeko militante inkoherentea, etika feministaren eta permakulturaren zalea, noraezerantzko prozesuan

betiere. Sare banatuetatik (P2P) abiatuz eta prokomunaren alde eginez, parte-hartzean oinarritutako ingurune eta prozesuak diseinatzen dituen ekimen sozialeko ColaBoraBorako kooperatibako kide da.

[www.colaborabora.org / @Ricardo_AMASTE](http://www.colaborabora.org/)

Interinstituzionalitatearen prototipoa

Gidariak: Ania González eta María Ptqk

Artista eta/edo bitartekari baten eta egitura publiko baten artean epe ertain eta luzera begira erlazio interinstituzional bat sortzeko helburua duen proiektu baten prototipoa sortzeko lan-mahaia.

Ania González kultur kritikaria da eta arte garaikideari buruzko *Plétora* aldizkari digitaleko zuzendarietako bat. Santiago de Compostelako Unibertsitateko *Sorkuntza esperimentalerako bide alternatiboak. Ipar-mendebaldeko ardatza 1975-2012* ikerketa-proiektuan parte hartzen du. [lysisundkritik.wordpress.com / pletora.es / @aniagonzalez](http://lysisundkritik.wordpress.com/)

María Ptqk komisarioa eta kultur ikertzailea da. Alderdi hauek jorratzen ditu: teknologiaren erabilera sozialak, genero-praktika eta -ikerketak eta kulturaren ekonomia. Soft Power bioteknologiari eta natur zientziei buruzko jarduera-programa gidatzen du eta GenderArtNet Europako arte feministaren kartografia esperimentalaren zuzendaritzako kide da. Ekipamendu publikoekin, argitalpenekin eta hedabideekin kolaboratzen du.

[www.mariaptqk.net / @ptqk](http://www.mariaptqk.net/)

Prototipoen amaierako topaketa

Azken egunean elkartu egingo dira hiru prototipoetan aritu diren pertsona guztiak, eta aurreko bi egunetan landutako dokumentuak aurkeztuko dituzte. Prototipoak gidatzeko arduradunek lan-egunetan zehar adostutakoaren laburpena jasotzen duen dokumentua idatziko dute. Dokumentu guztiak ere MOV-Sen sare sozialen eta webgunearen bidez zabalduko dira.

Proiektuaren aurkezpena

Galiziako mintegian eta topaketa honetan programaturako jardueretan (tailer, prototipo, paseo eta abarretan) landutako praktiken barruan nolabait ere dagoeneko martxan dauden proiektu batzuk aurkeztuko dira. Proiektu horiek programazio hedatuak lantzen dituzte modu artikulatuan garatzen diren interinstituzionalitate-erlazioen bidez.

Gorputza desagerzten denean

Blanca Calvo eta Ion Munduaterekin

Proiektu honek gorputzaren eta ahotsaren arteko desartikulazioa *performancean* arakatu du *Cuadernoseko* argitalpen baten eta irratsaio baten bidez. Hasieratik bertatik ahotsa izan da ibilbidea osatzeko bitartekoa. *Performancearen* pertzepzioa beste bitarteko batera eramatean, irratria eta argitalpenetara alegia, sumatzen zuten hainbat galdera sortuko zitzaizkiela. Irratia aukeratu zuten airean egoteko ideia hurbiltzeko aukera ematen zuelako, mikrofonoaren bidez, proiektuaren garapenaren barrualdearen eta kanpoaldearen arteko artikulazioaren barruan. Gauzen ordenarekin zerikusia zuen horrek, dispositiboak urratu eta mugimenduak beren materialtasunetik askatzearekin.

Blanca Calvo zuzendari artistikoa, koreografoa eta interpretea da. Bi hiritan dihardu, Madrilen eta Donostian, eta bietan ibili da proiektu sortzaile eta prozesualak lantzen.

Ion Munduate dantza alorreko artista Donostian, Madrilen eta Parisen ikasia da. 1994an hasi zen elkarlanean Blanca Calvorekin eta 1998az geroztik Mugatxoan proiektua zuzentzen dute elkarrekin. Hauek dira Munduateren pieza nabarmenenak: *Lucía con zeta*, *Boj de largo* (*FlyBall*), *ASTRA TOUR*, *BAT*, *Beautiful Animals Trying* eta *Sin título, en colores*.

www.mugatxoan.org

Interinstituzionalitatearen kontratua / Harreman kontraktual bat eraikitzeko kita

Ania Gonzálezekin

Arte bizien alorrean sortzaile, bitartekari eta kultur erakunde publiko nahiz pribatuen artean lankidetzak-hitzarmenak edo kontratuak gauatzeko "kit dokumental" juridikoki operatibo bat sortzeko proiektua. MOV-Sek hasitako lan-prozesu kolektibotik abiatuta, dokumentu ireki eta aldagarri bat sortzea proposatzen da, sortzaile eta profesionalen komunitateak finkatutako irizpideak bertan txertatzeko, arte bizien barruan sartzen diren alor guztien behar tekniko eta teorikoei erantzunez.

Ania González kultur kritikaria da eta arte garaikideari buruzko *Plétora* aldizkari digitaleko zuzendarietako bat. Santiago de Compostelako Unibertsitateko *Sorkuntza esperimentalerako bide alternatiboak*. *Ipar-mendebaldeko ardatza 1975-2012* ikerketa-proiektuan parte hartzen du. [lysisundkritik.wordpress.com / pletora.es / @aniagonzalez](http://lysisundkritik.wordpress.com/)

Bulegoa Z/B proiektua

Beatriz Cavia, Miren Jaio eta Leire Vergararekin

Bilboko Solokoetxe auzoan kokatutako espazio honetan ekoizpena, eztabaida, gogoeta eta ideien trukaketa lantzen dira, proiektu artistikoak ikertu eta gauatzeko helburuz, guztia ere. Lankidetzak-ekimen honek era askotako jarduerak antolatzen ditu praktikaren eta teoriaren arteko bidegurutzea izateko asmoz, eta ikerketa-ildo hauek jorratzen ditu: historizazio-prozesuak, itzulpen kulturala, performatibitatea, gorputza, postkolonialismoa, teoria soziala, artxiboa eta hezkuntza.

Beatriz Cavia, Isabel de Naverán, Miren Jaio eta Leire Vergara dira Bulegoko kideak. Komisariotza, artearen kritika, koreografia eta gizarte-zientzietatik datoz, eta esparruotan hainbat proiektu garatzen dituzte aldi berean. www.bulegoa.org

INTACT Project. Ekintza telepartekaturako interfazea

Sara Malinarich eta Manuel Teránekin

Bi zatitan banatutako konferentzia: INTACT proiektua (sare eta ekintza telepartekatuen sorkuntza) eta Huésped proiektuan zehar garatutako interfaze hibrido (fisiko eta bisual) baten instalazioa. Telepresentzia zuzenean esperimentatzeko aukera izango dute ikusleek. INTACTeko nodoetako baten urrutiko parte-hartzea izango dugu erakustaldian.

Sara Malinarich bitarteko berrien artista da, telepresentzia artistikoan espezializatuta dago eta lankidetzan oinarritutako sorkuntzarako plataforma eta interfaze teknologikoak garatzen lan egin du. *Claroscuros*, *Foto.sin.tesis*, *RemakeUp* eta *Just in case* dira haren artelanetako batzuk. Europako eta Ipar Amerikako arte, zientzia eta teknologia berrietako zenbait zentro biltzen dituen Gogoetarako Lorategiak nazioarteko proiektuko zuzendari artistikoa da gaur egun, bai eta INTACTekoa ere.

www.saramalinarich.net/ / [@saramalinarich](https://twitter.com/saramalinarich)

Manuel Teránek arte plastikoen eta artera aplikatutako teknologia berrien alorrean egin du lan. INTACTeko zuzendari teknikoa da gaur egun. Teránen margolanak Espainiako hainbat galeriatan daude ikusgai. 2000n proiektu digitalak garatzen hasi zen beste artista batzuekin batera, eta sorkuntzarako euskarri hibridoekin eta estetika alorrak jorratzen ditu gehienbat.

2005az geroztik INTACT proiektuan kolaboratzen hasi ziren bi artista txiletarrok. Proiektu horrek ziberkultura ikertzen eta esperimentatzen du eta lankidetzako urrutiko sorkuntzarako lankidetzaren sareak sortzen ditu.

www.manuelteran.net/ / [@notengopajaros](https://twitter.com/notengopajaros)

www.intact01.net/ / [@intact_01](https://twitter.com/intact_01)

Bertako artistengana hurbiltzeko dispoitiboak

MOV-Sek Euskadin lan egiten duten artistak gonbidatu ditu beste lurralde batzuetatik etorritako gonbidatuekin aritu daitezten, zenbait topaketa kitzikagarri eta informaletan esperientziak trukatzeko.

Proiektua prestatzeko lan-bileretan sortu zen proposamena, topaketetan artistak elkarrengana gerturatzeko beharra nabarmendu baitzen orduan. Hainbat formula aztertu eta gero, proposatutako hiru bideek hurbilketa informala ahalbidetuko zutela iruditu zitzaigun, eta horrekin bertako artisten lanetara hurbiltzeko aukera emango zela.

Ibilbide pertsonalak *

Paseoak gonbidatu eta artisten artean Bilboko hirian barrena.

Bazkari informala *

Bazkaria Muelle 3n *
muelle3.wordpress.com

Elkarrizketak artistekin

Irrati saioa. Gidariak: María José Cifuentes.

Parte hartuko duten artistak

Eneko Balerdi / es.linkedin.com/pub/eneko-balerdi-eizmendi/3b/277/690

Helena Golab

Horman Poster / hormanposter.wordpress.com

Matxalen Bilbao / www.matxalenbilbao.com

Natalia Monge / www.organic.com.es

Olatz de Andrés / www.deandres.net

Sra. Polaroiska & Ruemaniak / cargocollective.com/srapolaroiska / cargocollective.com/ruemaniak

Ixiar Rozas

* Jarduera itxiak. Gonbidapen zuzena behar da parte hartzeko.

3, 2, 1 PROGRAMAZIOA.

FORMA ESZENIKO BERRIEN

NAZIOARTEKO TOPAKETA

Eguna	Ordua	Konpainia	Obra	Herrialdea	Diziplina
28	19:00 h	Marie-Caroline Hominal		Suitza	Master class
29	18:00 h	Danse Carpe Diem / Emmanuel Jouthe	ÉCOUTE POUR VOIR	Kanada	Dantza esperientziala
	19:00 h	Amanda Piña & Daniel Zimmermann	Austriako Mugimendu Gaietarako Ministerioaren aurkezpena	Austria	Ekitaldi ofiziala
	20:00 h	Marie-Caroline Hominal	BAT	Suitza	Dantza / Performancea
	21:30 h	Cie. Nuna / YoungSoon Cho Jaquet	Pilze	Suitza / Korea	Performancea
30	17:00 - 22:20 h 20 minututik behin	Marie-Caroline Hominal	Le triomphe de la renommée	Suitza	Dantza / Performancea
	18:00 h	Cindy Van Acker	Helder	Suitza	Dantza
	18:00 h	Danse Carpe Diem / Emmanuel Jouthe	ÉCOUTE POUR VOIR	Kanada	Dantza esperientziala
	18:30 h	Jordi Galí	T	Frantzia	Performancea
	20:00 h	Ana Borrallho & João Galante	Atlas Bilbao	Portugal	Performancea
	21:30 h	Alessandro Sciarroni	UNTITLED _ I will be there when you die	Italia	Dantza
	0:00 h 1:00 h	Soinu-ibiltaldia Isiltasunaren molde berriak	Xabier Erkizia & Ainara LeGardon	Euskal Herria	Musika
31	17:00 - 22:20 h 20 minututik behin	Marie-Caroline Hominal	Le triomphe de la renommée	Suitza	Dantza / Performancea
	18:00 h	Danse Carpe Diem / Emmanuel Jouthe	ÉCOUTE POUR VOIR	Kanada	Dantza esperientziala
	19:00 h	Jordi Galí	T	Frantzia	Performancea
	20:00 h	Cindy Van Acker	Monoloog	Suitza	Dantza
	21:00 h	Guillaume Marie & Tazcorp	Edging	Frantzia	Dantza

LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Mercat de les Flors

Nazioarteko erreferentea da dantzari eta mugimenduari lotutako arteen ikerkuntza, ekoizpen, sorkuntza eta hedapenari dagokienez. Bere programa pluralak dantza sortzeko eta pentsatzeko prozesuko une desberdinak jasotzen ditu. Trukerako espazioa da, dantza eta sorkuntzarekin eta pentsamenduarekin zerikusia duten beste alor batzuk uztartzeko espazioa, produktu berriak probatzeko, nortasun baten isla ere bada, desberdintasunak ikasteko tokia.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordetza

Azken urteotan lan-ildo hauek garatu ditu dantzaren alorrean: sorkuntza eta ekoizpenerako diru-laguntzak, konpainiak sendotzeko babesa, profesionalen trebakuntza, berezko jaialdi eta programak Dantza Zabalduz ekimenaren barruan, hala nola, Euskadiko Dantza Zirkuitua, d-Feria Dantza eta Dantzan Bilaka (pieza motak sortu eta aurkezteko topaketak). Azken hilabeteotan elkarlanean jardun du beste erakunde batzuekin batera, Bizkai eta Gipuzkoako dantza etxeak martxan jartzeko.

Etxepare Euskal Institutua

Euskara eta euskal kultura munduan zabaltzeko asmoz sortu zen. Euskararen ezagutza eta errekonozimendua bultzatzen ditu, bai eta euskara unibertsitatean irakastea eta gure hizkuntzaren gaineko ikerketa akademikoak egitea ere. Euskal kulturaren alor guztietako adierazpenak hedatzeko babesa ematen du, halaber. Elkarlanean jarduten du euskal sortzaile, eragile eta ekoizleekin batera, zubi-lana eginez gure artisten eta nazioarteko eragile eta erakundeen artean.

AlhóndigaBilbao

43.000 m²-ko Arte eta Kultura Zentroa, Bilboren erdi-erdian. Kultur programazio garaikidea eskaintzen du, izan ere, artea eta ezagutza, diseinua, arte eszenikoak eta musika, zinea eta teknologia berriak barne hartzen ditu. Hiririaren kultur eragilea, Ricardo Bastidak 1909an diseinatu eta Philippe Starck diseinatzaileak zaharberitutako ardo biltegi enblematiko baten eraldaketaren emaitza. Zentroak sorkuntza eta kultura garaikidea sustatzen ditu, diziplina anitza da eta ezagutza sortzen du; izan ere, bertan, diziplinak, edukiak eta publikoak elkarrekin harremanetan jartzen dira, eta, era berean, herritarren kultur maila aberasten du eta Bilboren aberastasuna nahiz nazioartekotzea ahalbidetzen ditu. AlhóndigaBilbao, Kultur Bizi Den Lekua.

Acción Cultural Española (AC/E)

Espainiako kultura eta ondarea Espainia barruan eta Espainiatik kanpo bultzatzeaz eta sustatzeaz arduratzen den erakunde publikoa da AC/E. Horretarako programa arras zabala garatzen du, eta profesional eta sortzaileen mugikortasuna laguntzen du erakusketa, biltzar, hitzaldi-ziklo, zinema, antzerki, musika eta ikus-entzunezkoen alorreko jarduera ugariren bidez. Bere jarduera-ildoen barruan honako hauek lantzen ditu: erakunde publiko eta pribatuekin koordinatzen da kultura kanpoan sustatzeko, babesa ematen die Espainiako artistei Espainia barruan eta Espainiatik kanpo eta proiektuak sustatzen ditu nazioartean diseinatzaile, zientzialari eta sortzaileekin elkarlanean.

Instituciones
colaboradoras

